Gipuzkoako Aldizkari Ofiziala — Boletín Oficial de Gipuzkoa

2020ko martxoaren 13a, ostirala — 50 — Viernes, a 13 de marzo de 2020

GIPUZKOAKO LURRALDE HISTORIKOKO ADMINISTRAZIOA — 2 — ADMINISTRACIÓN DEL TERRITORIO HISTÓRICO DE GIPUZKOA

## GIPUZKOAKO FORU ALDUNDIA

## DIPUTATU NAGUSIA

**Giza Eskubideetako eta Kultura Demokratikoko Zuzendaritza Nagusia**

*Gipuzkoako udalei eta irabazi asmorik gabeko entitate pribatuei oroimen historikoa berreskuratzeko proiektuak egiteko ematen zaizkien dirulaguntzen oinarri arautzaileak aldatzea eta 2020ko deialdia onartzea.*

Diputatuen Kontseiluak, 2020ko martxoaren 3ko bileran, ondorengo erabakia hartu du:

2016. urtean oroimen historikoa berreskuratzea xede zuten proiektuak gauzatzeko dirulaguntzen oinarri arautzaileak onartu ziren, Gipuzkoako udalei eta irabazi asmorik gabeko erakunde pribatuei zuzendutakoak hain zuzen ere. Aipatu laguntzek helburu dute oroimen historikoa berreskuratzea, hau da, Gipuzkoan edo Gipuzkoako jendeak jasandako gertaeren oroimena berreskuratzea, egia ezagutu eta aitortzea.

2020ko ekitaldi honetan, egokitzat jotzen da horrelako proiektuak edo jarduerak sustatzen jarraitzea. Hala ere, ulertzen da aldez aurretik aldatu egin behar dela dirulaguntzak ordaintzeko modua, diruz lagundutako jardueren ezaugarrietara hobeto egokitzeko. Ordaintzeko modu hori 5. oinarri espezifikoetan jasota dago, bai I. eranskinean, udalei zuzendutako dirulaguntzei buruzkoan, bai II. eranskinean, irabazi asmorik gabeko erakunde pribatuei zuzendutako dirulaguntzei buruzkoan.

Gauzak horrela, erabaki honen bidez proposatzen da, alde batetik, aldatzea 2016ko maiatzaren 3ko erabakiaren bidez onartutako oinarri arautzaileetako oinarri espezifikoak, Gipuzkoako udalei eta irabazi asmorik gabeko erakunde pribatuei zuzendutako dirulaguntzak ematekoak, oroimen historikoa berreskuratzeko proiektuak gauzatzeko. Eta, bestetik, onartzea laguntza horien 2020. urteari dagokion deialdia, 140.000,00 euroan gehienez.

Dirulaguntza ildo hau ez da estatu laguntza, Europar Batasuneko Funtzionamendu Itunaren 107.1 artikuluan ezarritakoaren arabera, lehiakidea ez baitu faltsutzen –ez faltsutzeko mehatxatzen– eta ez baitio eragiten estatu kideen arteko merkataritzari; hori horrela, salbuetsita dago aipatu Itunaren 108.3 artikuluak ezarritako jakinarazpen prozeduratik.

Dirulaguntza ildo hori Gipuzkoako Foru Aldundiaren 2020-2023 Dirulaguntzen Plan Estrategikoan jasota dago.

Horrenbestez, Diputatuen Kontseiluak, diputatu nagusiak proposatuta eta eztabaidatu ondoren,

ERABAKITZEN DU

*Lehenengo.* Aldatzea Diputatuen Kontseiluaren 2016ko maiatzaren 3ko erabakiaren bidez onartutako oinarri arautzaileen I. eranskineko (udalei zuzendutako dirulaguntzak) 5. oinarri espezifikoa. Oinarri arautzaile horiek onartu ziren Gipuzkoako

## DIPUTACIÓN FORAL DE GIPUZKOA

## DIPUTADO GENERAL

**Dirección General de Derechos Humanos y Cultura Democrática**

*Modificación de bases reguladoras y convocatoria 2020 de las subvenciones destinadas a ayuntamientos y a entidades privadas sin ánimo de lucro de Gipuzkoa para la realización de proyectos de recuperación de la memoria histórica.*

El Consejo de Gobierno Foral, en sesión de 3 de marzo de 2020, ha adoptado el siguiente acuerdo:

En el año 2016 se aprobaron las bases reguladoras de las subvenciones destinadas a ayuntamientos y a entidades privadas sin ánimo de lucro de Gipuzkoa para la realización de proyectos de recuperación de la memoria histórica. Dichas ayudas tienen por objeto recuperar la memoria histórica, es decir, recuperar, conocer la verdad y reconocer los hechos acaecidos en Gipuzkoa o a personas de este Territorio Histórico.

En el presente ejercicio 2020 se considera oportuno continuar promoviendo este tipo de proyectos o actuaciones. No obstante, se entiende que previamente es necesario modificar la forma de abono de las subvenciones para una mejor adecuación de la misma a las características de las actividades subvencionadas. Dicha forma de abono está contemplada en sendas bases específicas 5.ª, tanto en el anexo I, correspondiente a las subvenciones destinadas a los ayuntamientos, como en el anexo II, referente a las subvenciones destinadas a las entidades privadas sin ánimo de lucro.

Por todo lo expuesto, mediante el presente acuerdo se propone modificar dichas bases específicas de las bases reguladoras aprobadas por acuerdo de 3 de mayo de 2016 para el otorgamiento de subvenciones destinadas a ayuntamientos y a entidades privadas sin ánimo de lucro de Gipuzkoa para la realización de proyectos de recuperación de la memoria histórica, y aprobar la convocatoria de dichas ayudas correspondiente al año 2020 por un importe máximo de 140.000,00 euros.

La presente línea de subvención no constituye ayuda estatal en los términos establecidos en el apartado 1 del artículo 107 del Tratado de Funcionamiento de la Unión Europea, dado que no falsea –ni amenaza con falsear– la competencia ni afecta al comercio entre estados miembros; por tanto, queda excluida del procedimiento de notificación previsto en el artículo 108.3 de dicho Tratado.

Esta línea de subvención está incluida en el Plan Estratégico de Subvenciones 2020-2023 de la Diputación Foral de Gipuzkoa.

Por consiguiente, a propuesta del diputado general, el Consejo de Gobierno Foral, previa deliberación,

ACUERDA

*Primero.* Modificar la base específica 5.ª del anexo I, subvenciones destinadas a ayuntamientos, de las bases reguladoras aprobadas por acuerdo de Consejo de Gobierno Foral de 3 de mayo de 2016 para el otorgamiento de subvenciones destinadas

EK\CV GAO-I-2020-01465

udalei eta irabazi asmorik gabeko erakunde pribatuek zuzendutako dirulaguntzak emateko, oroimen historikoa berreskuratzeko proiektuak gauzatzeko. (2016ko maiatzaren 6ko Gipuzkoako ALDIZKARI OFIZIALA, 85 zk.). Ondorengo eran idatzita geratuko da:

1. Dirulaguntzak honela ordainduko dira:

— Dirulaguntzaren zenbatekoaren % 30 dirulaguntza ematen den unean ordainduko da, diruz laguntzen diren jarduketak aurrera eramateko beharrezko finantzaketa gisa. Kontuan hartuta dirulaguntzen xedea eta horien entitate onuradunen izaera, ez da bermerik eskatuko egiten diren ordainketa aurreratuengatik.

— Gainerako % 70 ordainduko da, 14. oinarrian ezarritako justifikazio kontua deialdian ezartzen den egunean aurkeztu ondoren, baldin eta diruz lagundutako jarduera egun horretarako amaituta badago, edo, halakorik ezean, justifikazio kontu partzial bat aurkeztu ondoren, ordaindu beharreko kopuruari dagokion zenbatekoan.

Bigarren kasu horretan, erakunde onuradunak deialdiaren hurrengo urteko martxoaren 31 baino lehen aurkeztu beharko du justifikazio osoa.

2. Ordainketak egin ahal izateko, zerga betebeharrak eta Gizarte Segurantzarekikoak betetzen dituztela egiaztatzeko agiri eguneratua aurkeztu behar dute entitate onuradunek, eskaera aurkeztu zutenetik 6 hilabete baino gehiago igaro bada.

*Bigarren.* Aldatzea erreferentziako oinarri arautzaileen II. eranskineko (irabazi asmorik gabeko erakunde pribatuei zuzendutako dirulaguntzak) 5. oinarri espezifikoa. Ondorengo eran idatzita geratuko da:

1. Dirulaguntzak honela ordainduko dira:

— Dirulaguntzaren zenbatekoaren % 30 dirulaguntza ematen den unean ordainduko da, diruz laguntzen diren jarduketak aurrera eramateko beharrezko finantzaketa gisa. Kontuan hartuta dirulaguntzen xedea eta horien entitate onuradunen izaera, ez da bermerik eskatuko egiten diren ordainketa aurreratuengatik.

— Gainerako % 70 ordainduko da, 14. oinarrian ezarritako justifikazio kontua deialdian ezartzen den egunean aurkeztu ondoren, baldin eta diruz lagundutako jarduera egun horretarako amaituta badago, edo, halakorik ezean, justifikazio kontu partzial bat aurkeztu ondoren, ordaindu beharreko kopuruari dagokion zenbatekoan.

Bigarren kasu horretan, erakunde onuradunak deialdiaren hurrengo urteko martxoaren 31 baino lehen aurkeztu beharko du justifikazio osoa.

2. Ordainketak egin ahal izateko, zerga betebeharrak eta Gizarte Segurantzarekikoak betetzen dituztela egiaztatzeko agiri eguneratua aurkeztu behar dute entitate onuradunek, eskaera aurkeztu zutenetik 6 hilabete baino gehiago igaro bada.

*Hirugarren.* Onartzea oroimen historikoa berreskuratzeko proiektuak gauzatzeko Gipuzkoako udalei eta irabazi asmorik gabeko erakunde pribatuei zuzendutako dirulaguntza horien 2020ko deialdia. Deialdia erabaki honen eranskinean jasotzen da.

*Laugarren.* Baimentzea ehun eta berrogei mila euroko (140.000,00) gastua, ondorengo kontu sailen kargura:

1.0140.400.461.01.03.2020: 70.000 €.

1.0140.400.481.00.02.2020: 70.000 €.

*Bosgarren.* Argitaratzea erabaki hau Gipuzkoako ALDIZKARI OFIZIALEAN dagozkion ondorioetarako.

Erabaki hau behin betikoa da, eta amaiera ematen dio administrazio bideari. Interesdunek erabaki honen aurka zuze-

a ayuntamientos y a entidades privadas sin ánimo de lucro de Gipuzkoa para la realización de proyectos de recuperación de la memoria histórica (BOLETÍN OFICIAL de Gipuzkoa n.º 85, de 6 de mayo de 2016), que queda redactada del siguiente tenor:

1. Las subvenciones se abonarán de la siguiente forma:

— Un 30 % del importe de la subvención se abonará en el momento de la concesión, como financiación necesaria para poder llevar a cabo las actuaciones inherentes a la subvención. Dado el objeto de las subvenciones y el carácter de las entidades beneficiarias de las mismas, no se exigirá garantía por los pagos anticipados que se efectúen.

— El 70 % restante se abonará tras la presentación, en la fecha que se establezca en la convocatoria, de la cuenta justificativa establecida en la base 14, si la actividad subvencionada ya hubiera finalizado para dicha fecha o, en su defecto, de una cuenta justificativa parcial, por un importe correspondiente a la cantidad a abonar.

En este segundo caso, la entidad beneficiaria deberá presentar la totalidad de la justificación con anterioridad al 31 de marzo del año siguiente a la convocatoria.

2. La realización de los pagos estará condicionada a que las entidades beneficiarias actualicen la documentación acreditativa de encontrarse al corriente en sus obligaciones tributarias y con la Seguridad Social, siempre que se haya rebasado el plazo de 6 meses de vigencia de la misma.

*Segundo.* Modificar la base específica 5.ª del anexo II, subvenciones destinadas a entidades privadas sin ánimo de lucro, de las bases reguladoras de referencia, que queda redactada del siguiente tenor:

1. Las subvenciones se abonarán de la siguiente forma:

— Un 30 % del importe de la subvención se abonará en el momento de la concesión, como financiación necesaria para poder llevar a cabo las actuaciones inherentes a la subvención. Dado el objeto de las subvenciones y el carácter de las entidades beneficiarias de las mismas, no se exigirá garantía por los pagos anticipados que se efectúen.

— El 70 % restante se abonará tras la presentación, en la fecha que se establezca en la convocatoria, de la cuenta justificativa establecida en la base 14, si la actividad subvencionada ya hubiera finalizado para dicha fecha o, en su defecto, de una cuenta justificativa parcial, por un importe correspondiente a la cantidad a abonar.

En este segundo caso, la entidad beneficiaria deberá presentar la totalidad de la justificación con anterioridad al 31 de marzo del año siguiente a la convocatoria.

2. La realización de los pagos estará condicionada a que las entidades beneficiarias actualicen la documentación acreditativa de encontrarse al corriente en sus obligaciones tributarias y con la Seguridad Social, siempre que se haya rebasado el plazo de 6 meses de vigencia de la misma.

*Tercero.* Aprobar la convocatoria de 2020 de las citadas subvenciones destinadas a ayuntamientos y a entidades privadas sin ánimo de lucro de Gipuzkoa para la realización de proyectos de recuperación de la memoria histórica, que se acompaña al presente acuerdo como anexo.

*Cuarto.* Autorizar un gasto por importe de ciento cuarenta mil euros (140.000,00) con cargo a las siguientes partidas:

1.0140.400.461.01.03.2020: 70.000 €.

1.0140.400.481.00.02.2020: 70.000 €.

*Quinto.* Publicar el presente acuerdo en el BOLETÍN OFICIAL de Gipuzkoa a los efectos oportunos.

Este acuerdo es definitivo y pone fin a la vía administrativa. Las personas interesadas podrán interponer directamente con-

EK\CV GAO-I-2020-01465

nean administrazioarekiko auzi errekurtsoa aurkez dezakete administrazioarekiko auzietako Donostiako epaitegietan, erabakia argitaratu eta biharamunetik hasita bi hilabeteko epean.

Hala ere, partikularrek aukera dute horren aurretik berraztertzeko hautazko errekurtsoa aurkezteko Diputatuen Kontseiluari, argitaratu eta biharamunetik hasita hilabeteko epean. Hori eginez gero, ezingo da administrazioarekiko auzi errekurtsorik aurkeztu harik eta berraztertzekoaren berariazko ebazpena eman edo ustezko ezespena gertatu arte. Dena dela, egoki iritzitako beste edozein errekurtso aurkez daiteke.

Donostia, 2020ko martxoaren 9a.—Juan José de Pedro Alonso, Diputatu Nagusiaren Alorreko idazkaria.

(1465)

ERANSKINA

*Oroimen Historikoa Berreskuratzea xede duten Proiektuak gauzatzeko Gipuzkoako udalei eta irabazi asmorik gabeko erakunde pribatuei zuzendutako dirulaguntzen 2020ko deialdia.*

1. *Oinarri arautzaileak.*

Deialdi hau Diputatuen Kontseiluaren 2016ko maiatzaren 3ko erabakiaren bidez onartutako oinarri arautzaileek arautzen dute (2016ko maiatzaren 6ko 85 zk. Gipuzkoako ALDIZKARI OFIZIALA), Diputatuen Kontseiluaren 2020ko martxoaren 3ko erabakiaren bidez aldatutakoek.

2. *Finantzazioa.*

2.1. Deialdi honetarako gehieneko zenbatekoa 140.000,00 eurokoa izango da, kontu sail hauen kargura:

1.0140.400.461.01.03.2020: 70.000 €.

1.0140.400.481.00.02.2020: 70.000 €.

2.2. Baimendutako gastua handitu edo murriztu ahal izango du aldaketaren zenbatekoaren arabera eskumena esleituta duen organoak, dirulaguntza ematea ebatzi baino lehen. Dena den, horrek ez du beste deialdi bat egitea ekarriko. Kopuru gehigarria eraginkorra izateko baldintza izango da dirulaguntzak ematea ebatzi aurretik kreditua erabilgarri aitortzea.

3. *Erakunde eskatzaileak.*

3.1. Deialdi honetako dirulaguntzak eskatu ahal izango dituzte Gipuzkoako Lurralde Historikoko udalek –banaka edo udal batzuk elkartuta– eta legez eratutako irabazi asmorik gabeko erakunde pribatuek.

3.2. Gainera, dirulaguntzen onuradun izateko, eskatzaileak ez du sartuta egon behar martxoaren 27ko 3/2007 Foru Arauak, Gipuzkoako Lurralde Historikoko dirulaguntzenak, 12. artikuluaren 2., 3. eta 4. paragrafoetan ezartzen dituen debeku kasuetan; eta oinarri arautzaileetan adierazitako gainerako baldintzak ere bete behar ditu.

3.3. Ezingo dira onuradun izan inolaz ere, oro har, giza eskubideen aurkako helburuak, onarpen edo sarbide sistema, funtzionamendua, ibilbidea edo jarduera dituzten erakundeak; eta ezta ere martxoaren 9ko 2/2015 Foru Arauak, emakumeen eta gizonen berdintasunerakoak, 26.3 artikuluan aurreikusten dituen egoeretan daudenak.

4. *Eskaerak aurkezteko epea.*

Eskaerak aurkezteko epea deialdi hau Gipuzkoako ALDIZKARI OFIZIALEAN argitaratzen den egunetik bertatik hasiko da eta 2020ko martxoaren 31n amaituko da.

tra él recurso contencioso-administrativo ante los Juzgados de lo Contencioso-Administrativo de San Sebastián, en el plazo de dos meses a partir del día siguiente al de su publicación.

No obstante, las personas particulares, con carácter previo, podrán interponer recurso potestativo de reposición ante el Consejo de Gobierno Foral, en el plazo de un mes a partir del día siguiente al de su publicación. En este caso, no se podrá interponer recurso contencioso-administrativo hasta que sea resuelto expresamente el de reposición o se haya producido su desestimación presunta. Todo ello sin perjuicio de la interposición de cualquier otro recurso que se estime pertinente.

San Sebastián, a 9 de marzo de 2020.—El secretario del Área del Diputado General, Juan José de Pedro Alonso.

(1465)

ANEXO

*Convocatoria de 2020 de las subvenciones destinadas a Ayuntamientos y a entidades privadas sin ánimo de lucro para la realización de Proyectos de Recuperación de la Memoria Histórica.*

1. *Bases reguladoras.*

La presente convocatoria se rige por las bases reguladoras aprobadas mediante acuerdo de Consejo del Gobierno Foral de 3 de mayo de 2016 (BOLETÍN OFICIAL de Gipuzkoa n.º 85, de 6 de mayo) y modificadas por acuerdo de Consejo de Gobierno Foral de 3 de marzo de 2020.

2. *Financiación.*

2.1. La cuantía máxima para la presente convocatoria será de 140.000,00 €, con cargo a las siguientes partidas:

1.0140.400.461.01.03.2020: 70.000 €.

1.0140.400.481.00.02.2020: 70.000 €.

2.2. El importe del gasto autorizado podrá ser incrementado o disminuido, con carácter previo a la resolución de las solicitudes presentadas, por el órgano que tenga atribuida la competencia por razón de la cuantía de la modificación, sin que ello dé lugar a una nueva convocatoria. La efectividad de la cuantía adicional queda condicionada a la declaración de disponibilidad del crédito en un momento anterior a la resolución de la concesión de las subvenciones.

3. *Entidades solicitantes.*

3.1. Podrán acogerse a las subvenciones de la presente convocatoria los ayuntamientos –individualmente o concurriendo varios de ellos conjuntamente– del Territorio Histórico de Gipuzkoa y las entidades privadas sin ánimo de lucro legalmente constituidas.

3.2. Además, para obtener la condición de entidad beneficiaria de las subvenciones, las entidades solicitantes no deberán hallarse incursas en ninguna de las prohibiciones de los apartados 2, 3 y 4 del artículo 12 de la Norma Foral 3/2007, de 27 de marzo, de subvenciones del Territorio Histórico de Gipuzkoa, y deberán cumplir con los demás requisitos que se señalan en las bases reguladoras.

3.3. En ningún caso podrán obtener la condición de beneficiarias aquellas entidades cuyos fines, sistema de admisión o acceso, funcionamiento, trayectoria o actuación sean contrarios a los derechos humanos, en general; ni las que incurran en cualquier supuesto de los previstos en el artículo 26.3 de la Norma Foral 2/2015, de 9 de marzo, para la igualdad de mujeres y hombres.

4. *Plazo de presentación de solicitudes.*

El plazo de presentación de solicitudes comenzará el mismo día de la publicación de la presente convocatoria en el BOLETÍN OFICIAL de Gipuzkoa y finalizará el día 31 de marzo de 2020.

EK\CV GAO-I-2020-01465

5. *Jarduketak gauzatzeko eta egiaztatzeko epea.*

Eskaeraren xede diren jarduketak 2020ko urtarrilaren 1etik abenduaren 31ra bitartean gauzatu beharko dira, eta jarduketa horiek gauzatu izana justifikatzeko kontua aurkeztu beharko da, bai proiektuaren guztizko kostuaren arabera, bai, gutxienez, % 70eko gauzatze ehunekoaren arabera, 2020ko urriaren 15a baino lehen. Bigarren kasu horretan, erakunde onuradunak 2021eko martxoaren 31 baino lehen aurkeztu beharko du justifikazio osoa.

6. *Eskaerarekin batera aurkeztu behar den dokumentazioa.*

6.1. Dirulaguntzen eskaerak deialdi honi dagokion Gipuzkoako Foru Aldundiaren egoitza elektronikoko dirulaguntzen atarian (https://egoitza.gipuzkoa.eus) ezarritako ereduari jarraikiz beteko dira.

6.2. Gipuzkoako Lurralde Historikoko udalen kasuan, eskaera ereduari ondorengo dokumentazioa erantsi behar zaio:

a) 3.2. oinarrian aipatzen den berariazko eta ardurapeko adierazpena, onuradun izateko debekurik ez duela dioena, alegia.

b) Laguntza eskatzeko eskudun den udal organoak hartu duen erabakiaren edo ebazpenaren ziurtagiria, adierazita zenbateko laguntza eskatzen den eta kopuru hori zenbateko ehunekoa den jardueraren kostu osoaren gainean.

Hainbat udal elkarrekin bat eginda aurkezten badira, honako dokumentazio hau aurkeztu beharko dute:

i) Udal bakoitzeko organo eskudunak hartutako erabakiaren ziurtagiria.

ii) Udal bakoitzak hartzen dituen exekuzio konpromisoak.

iii) Horietako bakoitzari aplikatu beharreko dirulaguntzaren zenbatekoa, guztiak ere onuradunak izango baitira.

c) Urtean zehar egin beharreko lan prozesua jasotzen duen proiektua, gutxienez honako datu hauek jasoko dituena:

— Helburuen justifikazio laburra.

— Erabiliko den metodologia.

— Proiektuaren bideragarritasuna.

— Jarduketa mota desberdinak.

— Proiektua egiten duen pertsona fisiko edo juridikoaren esperientzia eta formakuntza.

— Lan Prozesuaren kronograma.

— Herritarrekiko harremanak: hartzaileak, herritarrek parte hartzeko bitartekoak, zabalkunde gaitasuna eta herritarrengan eragina izateko aukera.

— Nazioarteko jarraibideekin duen koherentzia.

— Genero ikuspegia.

— Hizkuntza ofizialen erabileraren planteamendua.

— Alderdi berritzaileak, eta.

— Ebaluazio adierazleak.

Hainbat udal elkarrekin bat eginda aurkezten badira, kide diren udalek ezingo dute beren kontura laguntzarik eskatu taldean eskatutakoaren antzeko proiektu baterako, ezta proiektua zatikatuta aurkeztu ere.

d) Proiektua gauzatzeko gastuen aurrekontua, kontu sailetan banakatuta; eta proiektuaren gainerako finantzaketa bideak, halakorik balego.

e) Dirulaguntza eskatzen den jarduera bererako eskatu diren bestelako laguntzen zerrenda: zenbateko laguntza, laguntza hori zein administrazio edo erakunde publikori nahiz priba-

5. *Plazo de ejecución y justificación de la actuación.*

Las actuaciones objeto de solicitud deberán ejecutarse entre el 1 de enero y el 31 de diciembre de 2020, debiendo presentarse la cuenta justificativa de la ejecución de las mismas, bien por el coste total del proyecto o, como mínimo, por un porcentaje de ejecución del 70 %, con anterioridad al 15 de octubre de 2020. En este segundo caso, la entidad beneficiaria deberá presentar la totalidad de la justificación con anterioridad al 31 de marzo de 2021.

6. *Documentación a presentar con la solicitud.*

6.1. Las solicitudes de subvención se presentarán conforme al modelo establecido en el portal de subvenciones de la sede electrónica de la Diputación Foral de Gipuzkoa (https://egoitza.gipuzkoa.eus) correspondiente a la presente convocatoria.

6.2. En el caso de los ayuntamientos del Territorio Histórico de Gipuzkoa, al modelo de solicitud se acompañará la siguiente documentación:

a) Declaración expresa y responsable de no estar incursa en las causas de prohibición para obtener la condición de entidad beneficiaria a las que se hace referencia en la base general 3.2.

b) Certificación del acuerdo o resolución del órgano municipal competente, por el que se resuelve solicitar la ayuda correspondiente, con indicación de la cuantía solicitada y del porcentaje que representa respecto del coste total de la actuación.

En el caso de ayuntamientos que concurran conjuntamente en agrupación, deberán presentar:

i) Certificado del acuerdo adoptado por el órgano competente de cada uno ellos.

ii) Los compromisos de ejecución que asume cada ayuntamiento.

iii) El importe de la subvención a aplicar por cada uno de ellos, que tendrán igualmente la consideración de beneficiarios.

c) Proyecto en el que figure el proceso de trabajo a realizar durante el año, que deberá contener, como mínimo:

— Breve justificación de los objetivos.

— Metodología a emplear.

— Viabilidad del proyecto.

— Los diferentes tipos de actuaciones.

— Experiencia y formación de la persona física o jurídica que realiza el proyecto.

— Cronograma del proceso de trabajo.

— Relación con la ciudadanía: personas destinatarias, mecanismos de participación ciudadana, capacidad divulgativa y su posibilidad de incidencia en la ciudadanía.

— Coherencia con las directrices internacionales.

— La perspectiva de género.

— Planteamiento del uso de las lenguas oficiales.

— Aspectos innovadores, e.

— Indicadores de evaluación.

En el caso de los ayuntamientos que concurren en agrupación, éstos no podrán solicitar por su cuenta ayuda para un proyecto similar al solicitado conjuntamente ni presentar el proyecto fraccionadamente.

d) Presupuesto, desglosado por partidas, del coste que la ejecución de tal proyecto conlleve, haciendo constar los demás medios de financiación del mismo, si los hubiere.

e) Relación de cualesquiera otras ayudas solicitadas con destino a la misma actividad, en la cual habrá de hacerse referencia a la cuantía, a las administraciones o entidades públicas

EK\CV GAO-I-2020-01465

turi eskatu zaion eta zein egoeratan dagoen zehaztuta (ukatuta, erabakitzeko, onartuta, diru kopuruak). Bestela, beste dirulaguntzarik ez dela eskatu egiaztatzen duen ardurapeko adierazpena.

f) Udaleko idazkariaren ziurtagiria, zera egiaztatzeko: erakunde eskatzaileak gastuaren zenbateko osotik % 20ko kofinantzazioa duela, gutxienez, proiektua aurrera eramateko.

Hainbat udal elkarrekin bat eginda aurkezten badira, udal bakoitzeko ziurtagiri bat aurkeztu beharko da.

g) Proiektuari buruzko aholkuak jasotzeko edo proiektua garatzeko kanpoko laguntza teknikoa kontratatu behar izanez gero, lan hori egingo duen pertsona fisiko edo juridikoaren esperientzia eta formakuntza zehaztu beharko da. Formakuntza proiektu motara egokitua izan behar da, eta gutxieneko esperientzia 3 urtekoa izango da antzeko proiektuetan.

h) Beste edozein dokumentazio, esleipen irizpideak kreditatzeko aukera ematen duena.

6.3. Legez eratutako irabazi asmorik gabeko erakunde pribatuen kasuan, eskaera ereduari ondorengo dokumentazioa erantsi behar zaio:

a) Erakundearen estatutuen eta eraketa aktaren kopia, dagokion erregistroan izena emanda dagoela egiaztatzen duen agiria, eta zerga alorreko eta Gizarte Segurantzako betebeharrak egunean dituela egiaztatzen duten agiriak (datu horiek dirulaguntzen organo kudeatzaileari zuzenean lagatzeko baimena eman ezean).

Erakunde horiek oroimen historikoarekin eta Gerra Zibileko eta diktadurako biktimen aitorpenarekin bat datozen helburu edo jarduerak izan beharko dituzte.

b) Bazkide Liburuaren kopia, bazkide kopurua kreditatzeko; hori aurkeztu ezean, elkarteko idazkariaren ziurtagiri ofiziala, non agertzen den gaur egun eta azken bi urteetan abenduaren 31n zegoen bazkide kopurua.

c) Erakunde eskatzailearen legezko ordezkari den pertsona fisikoaren NAren fotokopia.

d) Urtean zehar egin beharreko lan prozesua jasotzen duen proiektua, gutxienez honako datu hauek jasoko dituena:

— Helburuen justifikazio laburra.

— Erabiliko den metodologia.

— Proiektuaren bideragarritasuna.

— Jarduketa mota desberdinak.

— Proiektua egiten duen pertsona fisiko edo juridikoaren esperientzia eta formakuntza.

— Lan prozesuaren kronograma.

— Herritarrekiko harremanak: hartzaileak, herritarrek parte hartzeko bitartekoak, zabalkunde gaitasuna eta herritarrengan eragina izateko aukera.

— Nazioarteko jarraibideekin duen koherentzia.

— Genero ikuspegia.

— Hizkuntza ofizialen erabileraren planteamendua.

— Alderdi berritzaileak, eta.

— Ebaluazio adierazleak.

e) Proiektua gauzatzeko gastuen aurrekontua, kontu sailetan banakatuta; eta proiektuaren gainerako finantzaketa bideak, halakorik balego.

f) Dirulaguntza eskatu den jarduera horretarako eskatu diren beste dirulaguntza batzuen zerrenda; bertan adierazi beharko da zenbateko laguntza eskatu/eman den, zeintzuk diren laguntza eskatu zaien administrazio edo erakunde publiko edo

o privadas a las que se hubiere solicitado, así como el estado de las mismas (denegadas, pendientes de resolución, concedidas e importes). En caso contrario, declaración responsable de no haber solicitado ninguna otra ayuda.

f) Certificado del secretario o secretaria municipal, justificativo de la cofinanciación en un 20 %, como mínimo, del importe total del presupuesto del gasto para la realización del proyecto.

En el caso de los ayuntamientos que concurren conjuntamente en agrupación, deberá aportarse un certificado por cada ayuntamiento.

g) En el caso de contratación externa de una asistencia técnica para el asesoramiento o desarrollo del proyecto, habrá de especificarse la experiencia y formación de la persona física o jurídica que realizará la asistencia. La formación deberá ser adecuada al tipo de proyecto, y la experiencia mínima será de 3 años en proyectos similares.

h) Cualquier otra documentación que posibilite la acreditación de los criterios de concesión.

6.3. En el caso de entidades privadas sin ánimo de lucro legalmente constituidas, al modelo de solicitud se acompañará la siguiente documentación:

a) Copia de los estatutos y del acto fundacional de la entidad, certificación de estar dada de alta en el registro correspondiente y certificados de hallarse al corriente de las obligaciones tributarias y con la Seguridad Social (salvo que se autorice expresamente la cesión de dichos datos directamente al órgano gestor de las subvenciones).

Dichas entidades deberán tener entre sus objetivos o actividades las que sean acordes con la memoria histórica y el reconocimiento de las víctimas de la Guerra Civil y de la Dictadura.

b) Fotocopia del Libro de Socios/as, para acreditar su número, o en su defecto certificado oficial de la persona titular de la Secretaría de la Asociación certificando el número de socios/as actuales y a 31 de diciembre de los dos años inmediatamente anteriores.

c) Fotocopia del DNI de la persona física representante legal de la entidad solicitante.

d) Proyecto en el que figure el proceso de trabajo a realizar durante el año, que deberá contener, como mínimo:

— Breve justificación de los objetivos.

— Metodología a emplear.

— Viabilidad del proyecto.

— Los diferentes tipos de actuaciones.

— Experiencia y formación de la persona física o jurídica que realiza el proyecto.

— Cronograma del proceso de trabajo.

— Relación con la ciudadanía: personas destinatarias, mecanismos de participación ciudadana, capacidad divulgativa y su posibilidad de incidencia en la ciudadanía.

— Coherencia con las directrices internacionales.

— La perspectiva de género.

— Planteamiento del uso de las lenguas oficiales.

— Aspectos innovadores, e.

— Indicadores de evaluación.

e) Presupuesto, desglosado por partidas, del coste que la ejecución de tal proyecto conlleve, haciendo constar los demás medios de financiación del mismo.

f) Relación de cualesquiera otras ayudas solicitadas con destino a la actividad para la que se solicitare la subvención, en la cual habrá de hacerse referencia a la cuantía, a las administraciones o entidades públicas o privadas a las que se hubiere

EK\CV GAO-I-2020-01465

pribatuak, eta zein den horien egoera (ukatuta, ebazpenaren zain, emanda, eta kopuruak). Ez bada beste dirulaguntzarik eskatu, hori egiaztatzen duen ardurapeko adierazpena.

g) Proiektuari buruzko aholkuak jasotzeko edo proiektua garatzeko kanpoko laguntza teknikoa kontratatu behar izanez gero, lan hori egingo duen pertsona fisiko edo juridikoaren esperientzia eta formakuntza zehaztu beharko da.

h) Beste edozein dokumentazio, esleipen irizpideak kreditatzeko aukera ematen duena.

*7. Ebazpena eta jakinarazpena.*

7.1. Laguntzak emateko prozedura ebazteko eta jakinarazteko epea sei hilabetekoa izango da, gehienez ere, urteko deialdia Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratu eta hurrengo egunetik kontatzen hasita; data horretan hasten baita prozedura ondorio guztietarako. Adierazitako gehienezko epea amaitzerako ez bada berariazko ebazpenik jakinarazi, interesatuek administrazioaren isiltasuna dela-eta beraien eskaerak ezetsiak izan direla uler dezakete.

7.2. Deialdiaren ebazpena Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratuko da, urriaren 1eko 39/2015 Legeak, Herri Administrazioen Administrazio Prozedura Erkidearenak, 45.1, b) artikuluan ezarritakoaren arabera. Argitalpen horrek banakako jakinarazpena ordeztuko du eta, argitalpen egunaren biharamunetik hasita, jakinarazpena egintzat joko da lege-ondorio guztietarako.

solicitado, así como el estado de las mismas (denegadas, pendientes de resolución, concedidas e importes). En caso contrario, declaración responsable de no haber solicitado ninguna otra ayuda.

g) En el caso de contratación externa de una asistencia técnica para el asesoramiento o desarrollo del proyecto, habrá de especificarse la experiencia y formación de la persona física o jurídica que realizará la asistencia.

h) Cualquier otra documentación que posibilite la acreditación de los criterios de concesión.

*7. Resolución y notificación.*

7.1. El plazo máximo para resolver y notificar la resolución del procedimiento de concesión de las ayudas es de seis meses, computados a partir del día siguiente al de la publicación en el Boletín Oficial de Gipuzkoa de la correspondiente convocatoria anual, que implica la iniciación del procedimiento a todos los efectos. Transcurrido dicho plazo máximo sin haberse notificado la resolución, las entidades interesadas podrán entender desestimadas sus solicitudes por silencio administrativo.

7.2. Al amparo de lo dispuesto en el artículo 45.1, b) de la Ley 39/2015, de 1 de octubre, de Procedimiento Administrativo Común de las Administraciones Públicas, la resolución de la convocatoria será publicada en el Boletín Oficial de Gipuzkoa, sustituyendo dicha publicación a la notificación individual y entendiéndose efectuada ésta a todos los efectos legales desde el día siguiente a dicha publicación.


EK\CV GAO-I-2020-01465

Gipuzkoako Foru Aldundia
Diputatu Nagusiaren Alorra

Diputación Foral de Gipuzkoa
Área del Diputado General

| |
|---|
| ESKABIDE EREDUA / MODELO DE SOLICITUD |
| OROIMEN HISTORIKOA BERESKURATZEKO PROIEKTUA / PROYECTO DE RECUPERACIÓN DE LA MEMORIA HISTÓRICA |
| Eskatzailea / *Solicitante:*<br><br>IFK / *CIF*: PK / *CP*:<br>Helbidea / *Domicilio*:<br>Harremanetarako pertsona / *Persona de contacto*:<br>Telefonoa / *Teléfono*:<br>Helbide elektronikoa / *Correo electrónico*:<br>Kontu korrontea / *Cuenta corriente* (IBAN) ES |
| PROIEKTUAREN IZENA / DENOMINACIÓN DEL PROYECTO: |
| 1.- Proiektuaren helburuen justifikazio laburra / *Breve justificación de los objetivos del proyecto* |
| 2.- Erabiliko den metodologia / *Metodología a emplear* |
| 3.- Proiektuaren bideragarritasuna / *Viabilidad del proyecto* |
| 4.- Jarduketa mota desberdinak / *Diferentes tipos de actuaciones* |
| 5.- Proiektua egiten duen pertsona fisiko edo juridikoaren esperientzia eta formakuntza / *Experiencia y formación de la persona física o jurídica que realiza el proyecto* |
| 6.- Lan prozesuaren kronograma / *Cronograma del proceso de trabajo* |
| 7.- Herritarrekiko harremanak: hartzaileak, herritarrek parte hartzeko bitartekoak, zabalkunde gaitasuna eta herritarrengan eragina izateko aukera / *Relación con la ciudadanía: personas destinatarias, mecanismos de participación ciudadana, capacidad divulgativa y su posibilidad de incidencia en la ciudadanía* |
| 8.- Nazioarteko jarraibideekin duen koherentzia / *Coherencia con las directrices internacionales* |
| 9.- Genero ikuspegia / *Perspectiva de género* |
| 10.- Hizkuntza ofizialen erabileraren planteamendua / *Planteamiento del uso de las lenguas oficiales* |

EK\CV GAO-I-2020-01465

Gipuzkoako Foru Aldundia
Diputatu Nagusiaren Alorra
Diputación Foral de Gipuzkoa
Área del Diputado General

| |
|---|
| 11.- Alderdi berritzaileak / *Aspectos innovadores* |
| 12.- Ebaluazio adierazleak / *Indicadores de evaluación* |
| 13.- Proiekturako eskatu diren beste dirulaguntza batzuen zerrenda / *Relación de cualesquiera otras ayudas solicitadas con destino al proyecto*<br><br>EZ dira eskatu / *NO se han solicitado*: ☐<br>BAI eskatu dira / *SÍ se han solicitado:* ☐<br>NORI / A QUIÉN: kopurua/cantidad egoera/situación<br>€ |

**UDALEK AURKEZTU BEHARREKO ARDURAPEKO ADIERAZPEN EREDUA.**

......................................... jaunak / andereak, ……………………………................... Udaleko .......................................... gisa (kargua jarri)

**AITORTZEN DU**

ez ni ezta nik ordezkatzen dudan entitatea ere ez gaudela sartuta onuradun izateko arau hauetan aurreikusitako debekuetan eta gaitasungabetzen duten zirkunstantzietan: 3/2007 Foru Araua, martxoaren 27koa, Gipuzkoako Lurralde Historikoko dirulaguntzei buruzkoa -12. artikulua-; 2/2015 Foru Araua, martxoaren 9koa, emakumeen eta gizonen berdintasunari buruzkoa -26.3 artikulua-; eta, indarrean dagoen gainerako araudia.

Aitortzen du, baita ere, egunean dagoela lege xedapenek ezarritako zerga gaietako eta Gizarte Segurantzako betebeharretan.

**MODELO DE DECLARACIÓN RESPONSABLE A PRESENTAR POR AYUNTAMIENTOS.**

D/Dª..................................................., en calidad de (indicar cargo)……………………………… y en representación del Ayuntamiento de .......................................

**DECLARA:**

que no concurren en mí ni en la entidad a la que represento ninguna de las incompatibilidades, prohibiciones y circunstancias inhabilitadoras de la condición de beneficiario previstas en el artículo 12 de la Norma Foral 3/2007, de 27 de marzo, de Subvenciones del Territorio Histórico de Gipuzkoa, en el artículo 26.3 de la Norma Foral 2/2015, de 9 de marzo, para la igualdad de mujeres y hombres, y en el resto de la normativa vigente.

Asimismo, declara hallarse al corriente en el cumplimiento de sus obligaciones tributarias y con la Seguridad Social impuestas por las disposiciones vigentes.

Lekua eta data / lugar y fecha

Gipuzkoako Foru Aldundia
Diputatu Nagusiaren Alorra
Diputación Foral de Gipuzkoa
Área del Diputado General

**IRABAZI ASMORIK GABEKO ENTITATE PRIBATUEK AURKEZTU BEHARREKO ARDURAPEKO ADIERAZPEN EREDUA.**

Eskatzailearen izen-abizenak: ........................................
NA: .......................
Helbidea: ..................................................
Ordezkatzen duen entitatea: ...............................
Entitatearen IFK: .......................... Entitatearen helbidea: ................................................

**AITORTZEN DU**

ez ni ezta nik ordezkatzen dudan entitatea ere ez gaudela sartuta onuradun izateko arau hauetan aurreikusitako debekuetan eta gaitasungabetzen duten zirkunstantzietan: 3/2007 Foru Araua, martxoaren 27koa, Gipuzkoako Lurralde Historikoko dirulaguntzei buruzkoa -12. artikulua-; 2/2015 Foru Araua, martxoaren 9koa, emakumeen eta gizonen berdintasunari buruzkoa -26.3 artikulua-; eta, indarrean dagoen gainerako araudia.

Aitortzen du, baita ere, egunean dagoela lege xedapenek ezarritako zerga gaietako eta Gizarte Segurantzako betebeharretan.

Hala, berariaz
☐ BAIMENTZEN DU / EZ DU BAIMENTZEN ☐ horretarako eskumena duten organoek behar adinako informazioa eman diezaioten zuzenean dirulaguntza kudeatzen duen administrazio publikoari, ordezkatutako enpresak zerga betebeharrak eta Gizarte Segurantzarekikoak betetzen dituela egiaztatzeko.

**MODELO DE DECLARACIÓN RESPONSABLE A PRESENTAR POR ENTIDADES PRIVADAS SIN ÁNIMO DE LUCRO.**

D/Dª .........................................., mayor de edad, con D.N.I. nº.................... y domicilio en ..............................................., en representación de …......................................., con N.I.F. ...................... y domicilio social en .............................................

**DECLARA:**

que no concurren en mí ni en la entidad a la que represento ninguna de las incompatibilidades, prohibiciones y circunstancias inhabilitadoras de la condición de beneficiario previstas en el artículo 12 de la Norma Foral 3/2007, de 27 de marzo, de Subvenciones del Territorio Histórico de Gipuzkoa, en el artículo 26.3 de la Norma Foral 2/2015, de 9 de marzo, para la igualdad de mujeres y hombres, y en el resto de la normativa vigente.

Asimismo, declara hallarse al corriente en el cumplimiento de sus obligaciones tributarias y con la Seguridad Social impuestas por las disposiciones vigentes.

A tal efecto,
☐ SÍ / NO ☐ AUTORIZA expresamente para que los órganos competentes procedan a la cesión de la información que acredite que la empresa representada cumple con sus obligaciones tributarias y con la Seguridad Social directamente a la Administración Pública gestora de la subvención.

Lekua eta data / lugar y fecha

EK\CV GAO-I-2020-01465